




Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



ZTF-FCT
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología



INGURUMENAREKIKO KONPROMISOA ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEAN

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA (ZTF-FCT) UPV/EHuko ikastegia da, xede duena zientziaren eta teknologiaren arloko ezagutza sortzea, garatzea eta transmititzea. Horretarako, prestakuntza eskaintza zabala dauka, bai graduatan bai graduondokoetan, goi mailako ekoizpen zientifikoan oinarritua, eta, hortaz, ikasleak aukera dauka azken teknologiak eta aurrerapen zientifikoak hurbiletik ezagutzeko.

Fakultate hau betidanik egon da ohartuta xede dituen jarduerak eta ingurugiroa zaintzea bateragarri egitearen garrantziaz. Horrela, bada, 2011-2015 aldirako osatutako Plan Estrategikoan, "Gizarte Erantzukizuna, Komunikazioa eta Irudia" izenburudun ardatzaren barruan, helburuetako bat da ingurugiroaren arloko gestioa hobetzea.

ZTF-FCTren nahia da ingurugiroaren arloko jarrera hobetzeko zereginaren gestiorako lan metodo errez eta sistematizatua ezartzea. Horren bidez ondoko konpromisoak hartu ditu:

- Gure erakundearen lan egiten duten pertsonen eta ikasleen ingurugiroaren arloko prestakuntza ematea eta arlo horretako kontzientzia zabaltzea, jarduera guztietan gure ingurugiro politika betetzera bultzatuz.
- Ikastegiko jardueren dagokien ingurugiro araudia -eta etorkizunean hitzar litekeen beste edozein baldintza- bete egiten dela bermatzeko beharrezko diren neurriak ezartzea.
- Modu sistematikoan hondakinak murriztuz joatea, ahal den heinean gauzak birziklatuz eta berriro erabiliz, eta baliabide naturalak, lehengaiak eta energia modu eraginkorrean erabilia.
- Ingurugiroaren etengabeko hobekuntza lortzea, eta horretarako, urtero, definitu eta aztertuko ditugu ingurugiroaren arloko helburuak, jomugak eta programak, ezaugarriak nagusienak hobetze aldera.

Laburbilduz: ZTF-FCTk konpromisoa hartu du kutsadura prebenitzeko, eguneroko gestioan ingurugiro irizpideak ezarrita eta ingurugiroarekiko jarrera egunean-egunean hobetuta.

Leioa, 2015eko ekainaren 23a



Esther Domínguez Pérez
ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO DEKANOA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO DEKANOA

